

UDALAK aurkeztu asmo duen adierazpen instituzional honen aurrean hainbat galdera eta proposamen luzatzen ditugu:

KONPROMISOA

- **Jaien antolaketa**

Zeintzuk dira Eskoriatzako udalaren konpromisu zehatzak gai honekiko?
Udalak garatu al du jaietan eman daitezkeen erasoen aurrean martxan jarri beharreko protokolorik?

PUNTU LILA GUNEA:

- ➔ zein da helburua, ordutegiaz aparte, zein arreta eman ahal izango zaie beharra dutenei?
- ➔ nola garatu da protokoloa sortzeko prozesua?
- ➔ Zeintzuk hartu dute parte (norbanako/eragile) prozesu horretan?
- ➔ zabaldu al da edo nola zabaldu da herrira?

- **Emakumeen aurkako sexu indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa**

Eskoriatzako udalak berdintasun teknikaririk ez badu, nola landuko du sensibilizazio eta prebentzioa?

Zeintzuk dira udalak jarriko lituzken neurriak prebentzioa lantzeko?

Ba ahal du Eskoriatzako udalak, bertako langileak generoan formatzeko asmorik?

Emakumeen aurkako erasoen gaia larria den eanean, Eskoriatzako udalari eskatzen diogu, urtean zehar eta behar den eragileekin eta behar den esparru ezberdinetan, genero ikuspuntutik lanketa egiteko baliabideak jar ditzala. Lan hau egiteko, berdintasun tekniko beharrezkoa dala uste dugu.

Adierazpen instituzional hauek beharrezkoak direla ere uste dugu, baina ekintzekin lotuta ez badatoz, ez dira baliagarriak, horregatik Udalak hemen egindako galdera eta proposamenak aintzat hartuko dituelakoan gaude.

ESKORIATZAKO NESKA GAZTEAK, ESKORIATZAN FEMINISMOA BIZIRIK TALDEA,
GUERRERAS TALDEA

Eskoriatzan 2022-ekainaren 21ean